



## V. ERANSKINA

### 2020–2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIEKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA ERAKUNDEKO TEKNIKARIAK ETA GAINERAKO PERTSONALA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia

\_\_\_\_\_ duenak

#### HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Protokoloan ezarritako neurrien inguruan kirol-erakundearekin elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen dut, bereziki zuzentzen ditudan jardueren barruan nire ardurapean dauden adingabeek bete behar dutenari lotutakoak eta, kirol-jardueren barruan zein jardueretatik kanpo, hirugarrenak kutsatzeko arriskua ekiditeko neuk eduki behar dudan erantzukizunari lotutakoak.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire osasun egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37<sup>o</sup>tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirol-erakundeako osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, kirol-erakundeako osasun-arduradunari jakitera emango diot nire familiako bizikidetzaren unitateko pertsona bat COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, erakundeak nirekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.



- Ni ez nago osasun-agintariek ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot kirol-erakundeari jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunean parte hartuko dut jardueran.
- Onartzen ditut kirol-erakundeak parte hartzeko 2020-2021 ikasturterako ezarritako baldintzak.

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (e)an

Izenpetua

